

# Zientziari toki gutxi egunkarietan

**Irati Kortabitarte Eiguren & Guillermo Roa Zubia**

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

**Elhuyar Fundazioak egindako azterketa baten arabera, *Gara*, *Berria*, *El Diario Vasco*, *Deia* eta *El Correo Español* egunkarietan argitaratutako zientzia-berriek argitaratutakoaren % 1 osatu dute 2003ko azarotik 2004ko apirila bitarteko epean.**

URTE-ERDIKO EPEAN ARGITARATUTAKO ZIENTZIA-ALBISTEAK JASO, eta albiste horien hainbat azterketa egin ditugu. Albisteen kopurua, erabilitako formatua, albisteen iturriak (Euskal Autonomia Erkidegokoak edo kanpoko albisteak diren), hizkuntza eta tratatu diren gaiak aztertu ditugu. Horrekin guztia-ekin, zientzia- eta teknologia-gaiek eguneroko idatzizko komunikabideetan duten presentzia eta garrantzia neurtu nahi izan dugu.

Epe horretan, 1.252 albiste argitaratu dira EAeko bost egunkari horietan. Horien artean, *Berria* eta *El Correo Español* egunkariak argitaratu dituzte zientzia-albiste gehien, 426 eta 249 artikulua, hurrenez hurren.



G. ROA

Hala ere, albiste-kopurua ez da beti aldagai adierazgarri bat zientziak hartzen duen garrantzia neurtzeko. Horregatik, egunkari bakoitzak zientziari eskaintzen dion orrialde-kopurua aztertu dugu.


Hiru egunkariak eman diote toki gehien zientziari. Orri-kopuru handienetik txikienera, *Berria*, *El Correo Español* eta *Gara* dira egunkari horiek, 175, 149,25 eta 147,25 orrialderekin, hurrenez hurren. Datu horiek kontuan hartuta, datu orokorrak ere atera ditugu: zientziak berrien % 1 baino ez du hartzen aztertu diren egunkarietan.

Euskararen presentziari dagokionez, *Berria* egunkariak eman dio zientziari leku gehien sei hilabete hauetan. Eta, horregatik, argitaratu diren zientzia-artikuluen % 38,02 euskaraz daude.


## **Sinadurarik ez**

*Berria*, *Gara* eta *El Correo Español* egunkarien kasuan, zientzia eta teknologiari buruzko artikulua gehienak egile jakin batzuek idazten dituzte. Dena dela, egunkariak ez dute zientzia-formazioa indartzen (kazetari zientifikoaren figura ez da ohikoa). Joera handia dago sinatu gabeko artikulua argitaratzeko.

## Saillkapena orrialde-kopuruaren arabera



## Albisteak gaika



Iritzi-artikulu gutxi izan dira, 18 besterik ez. Beraz, nahiz eta zientziak geroz eta leku gehiago duen, iritziaren alorrean zientziak hartzen duen garrantzia txikia da. Horrek adierazten du egunkariak ez diotela ematen beste esparru batzuei ematen dieten tratamendua, politikari, administrazioari, ekonomiari eta kirolei ematen dietena, esaterako. Gainera, iritzi-artikuluetan ikertzaileen iritziak pisu gutxi du.

Hala ere, ikerketa horren datu-bilketa bukatu ondoren, zientzia-gaiei buruzko iritzi-zutabe bat jarri du martxan *Berria* egunkariak. Zutabe hori urtetan egin zen *Egunkaria*-n, eta, orain, berreskuratu egin nahi izan dute argitalpen berrian.

## Marte nagusi

Egunkarietan gaurkotasun handiko gaiak tratatzen dituzte, baina, gaurkotasun handiko albisteak zientziaren arlo guztietan izaten diren arren, arlo guztiak


*“gaurkotasun handiko albisteak zientziaren arlo guztietan izaten diren arren, arlo guztiak ez dira berdin tratatzen egunkarietan”*

ez dira berdin tratatzen egunkarietan. Komunikabideetan indarra izateko, albisteek salgarriak izan behar dute hein handi batean. Horregatik, prentsan, oro har, espazioarekin eta osasunarekin zerikusia duten gaiak argitaratzen dira gehien; urte-erdiko azterketa honetan ere joera bera ikusi dugu.

Albisteak gaika sailkatu ondoren, argi ikusten da hori. Sei hilabete horietan nagusi izan dira Espazioa (356 artikulua), Osasuna (281 artikulua) eta Biziaren

Zientziak (194 artikulua). Ingurumena-ekin zerikusia duten albisteek, nahiz eta salgarriak izan, ez dute hainbesteko presentzia izan (124 artikulua). Bestalde, Fisika, Kimika eta Matematika ataleko albisteak oso gutxi izan dira, 11 artikulua, hain zuzen ere. Gehienek Fisikarekin dute zerikusia. Lehenengo hiru hilabeteetan ez zen artikulua bat ere argitaratu atal horretan.

Bestalde, zientzia-albisteak sartu ala ez erabakitzeke, kanpoan ematen zaien garrantzia hartzen da kontuan, hau da, 'girotzen' bada komunikabideek erantzun egiten dute. Oro har, egunkarietan ez dute garrantziaren baloriorik egiten, ikuspuntu zientifikotik alegia; aitzitik, balorazio hori kanpotik emanda dator. Lan hori beste batzuek egiten dute: agentziek, agintariak, aldiakari espezializatuek eta kongresuetako edota hitzaldietako parte-hartzaileek, besteak beste. Prentsa-kabineteak eta informazio-zerbitzuak ere horren erantzule dira, horiek daudenean komunikabideek hobeto erantzuten baitute.

Sei hilabete hauetan egon dira egunkarietan garrantzi edo oihartzun handia izan duten hainbat ikerketa-lerro, besteak beste, Marteri buruzko ikerketa eta hegaztien gripea. Oro har, Marteri buruzko ikerketak oihartzun handia izan du bost egunkarietan. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko albisteei dagokienez, aipatzekoak dira, besteak beste, Zientziaren Asteak eta Euskadi Ikerketa Sariak egunkarietan izan duten presentzia. 

Egunkarietan gaurkotasuna izaten da zientzia neurtzeko irizpide nagusia.



E. CARTON